

# ARETXABALETAKO UDALEKU IREKIETAKO JARDUERA PROTOKOLOA



Aretxabaleta, 2026ko uztaia



## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>3</b>
1.1. Legeek dakarten paradigma-aldaketa .....	3
1.2. Haurren eta nerabeen eskubideak.....	3
1.3. Funtsezko kontzeptuak.....	4
1.4. Indarkeria .....	4
1.5. Arrisku-faktoreak eta indarkeria motak .....	4
<b>2. AISIA HEZIGARRIA.....</b>	<b>8</b>
2.1. Legearen garrantzia eta aisia hezigarriaren fokoa .....	8
<b>3. NOLA SORTU GUNE SEGURUAK.....</b>	<b>8</b>
3.1. Ezaugarriak .....	8
<b>4. UDALEKUETAKO AGENTEAK.....</b>	<b>9</b>
4.1. Begiraleen funtzioak .....	9
4.2. Zuzendarien funtzioak .....	9
4.3. Erreferentziazko udal teknikariaren funtzioak .....	10
<b>5. LANERAKO TRESNAK .....</b>	<b>11</b>
5.1. Begiraleen jokabide-kodea .....	11
5.2. Babes ordezkaria .....	12
5.3. Arriskuen mapa .....	12
5.4. Prebentzio protokoloak.....	12
<b>6. INDARKERIA EDO JARRERA DESEGOKIEN KASUAN JARDUTEKO PROTOKOLOA ..</b>	<b>15</b>
6. 1. Identifikatzea .....	15
6.2. Biktima artatzea.....	16
6.3. Esku-hartzea .....	16
6.4. Jarraipena .....	18
6.5. Ebaluazioa .....	18
<b>7. MONITORIZAZIOA .....</b>	<b>18</b>

## 1. SARRERA

### 1.1. Legeek dakarten paradigma-aldaketa

Azken urteotan **haur eta nerabeen ongizateari eta babesari** zuzenean eragiten dieten bi lege sartu dira indarrean, bata Estatu mailakoa eta bestea EAEkoa:

- Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, (LOPIVI)
- EAEko Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legea

LOPIVIak helburu gisa ondokoa jasotzen du:

“**Hurrek eta nerabeek beren osotasun fisiko, psikiko, psikologiko eta moralerako dituzten oinarrizko eskubideak bermatzea edozein indarkeria motaren aurrean.** Horretarako, hurrek eta nerabeek beren **nortasuna askatasunez** garatu ahal izatea ziurtatuko du, eta babes integraleko neurriak ezarriko ditu, barnean hartuta sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, babesa eta kaltearen erreparazioa, haien bizitza garatzen den eremu guztietan

Eusko Jaurlaritzak onartutako Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legea zabalagoa da, LOPIVIak diona bere egiteaz gain, **tratu onaren kultura** sustatzea du ardatz.

Azpimarratzekoa da, **tratu ona eta adingabeen ongizatea sustatzeko bidean**, legeak funtsezko zeregina esleitzen diola **aisia hezigarriari**. Izan ere, aisialdi hezigarriko jardueretan parte hartzea ezinbestekotzat jotzen du haurren eta nerabeen sozializazio-prozesurako, nahiz bizitzarako funtsezkoak diren gaitasunak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzeko, besteak beste. Horra hor, gure zerbitzuaren garrantzia eta ardura.

Aisia hezigarri esparruan, indarkeria egoerak eman ahal direla ohartuta, haur eta nerabeen kontrako indarkeria prebenitzeko ondoko jarduketak bete behar dituztela jasotzen du legeak:

- Euskal administrazio publikoek **aisialdi hezigarriaren eremuan hartutako jardun-protokoloak** aplikatzea.
- Langileek edozein **indarkeria-mota prebenitzeko eta babesteko protokoloak** izatea.
- **Monitorizazio-sistema** bat ezartzea, protokoloak betetzen direla ziurtatzeko.
- **Haurren eskubideak eta eginbeharrak sustatu eta errespetatzeko kultura bultzatzea**, inolako diskriminaziorik gabe, desgaitasunen bat duten pertsonetikiko eta beste edozein egoera pertsonal, familiar edo sozialengatik egoera bereziki zaurgarrian daudenetikiko errespetua barneratuz.
- Neurriak hartzea aisialdia ez dadin diskriminazio-egoera bihurtu genero-identitateagatik edo sexu-orientazioagatik, eta haur nahiz haien familiekin eta profesionalekin lan egitea, irainak eta adierazpen arbuigarriak eta diskriminatzaileak ekiditeko eta gertatuz gero esku-hartzeko.
- **Gatazkak modu baketsuan konpontzeko metodo alternatiboen** erabilera sustatzea.
- **Haur eta nerabeen parte-hartze aktiboa** sustatzea

Horiek horrela, eskuartean dugun dokumentu hau aipatutako bi legeek jasotzen dituenekin bat eginez, Aretxabaletako haurren ongizatea sustatzeko asmoz sortu da eta horren baitan udaleku irekiak ingurune seguru eta babesle izateko jarduerak jasotzen dira.

### 1.2. Haurren eta nerabeen eskubideak

- Haurrak eta nerabeak **eskubideen titular diren subjektuak** dira
- Pertsona adingabearen **interes gorena aintzat hartuko da**
- Hurrek eta nerabeek **parte hartzeko eskubidea** dute



- Hurrek eta nerabeek bizitzeko, osotasun fisiko eta psikikoa izateko eta tratu ona jasotzeko eskubidea dute
- Hurrek eta nerabeek atsedenerako, jolaserako eta aisialdirako eskubidea dute.

### 1.3. Funtsezko kontzeptuak

#### Tratu ona

Tratu ontzat joko da pertsona adingabeei behar duten laguntza, zaintza eta babesa ematera bideratutako portaera, haien oinarrizko premia fisikoak, emozionalak, kognitiboak, sozialak eta afektibo-sexualak asetzen eta gaitasunak garatzen laguntzen duena, aukerak sustatuz eta emanez haien autonomia eta norberaren buruarekiko eta gaitasunekiko konfiantza progresiboki areagotzeko. Horretarako, afektua, laguntza, komunikazioa, konpainia, eguneroko bizitzako inplikazioa, elkarrekiko errespetua, gatazken konponbide baketsua, eredu egokiak, orientazioa eta gainbegiratzea emango zaizkie.”

#### Ingurune segurua

“Ingurune segurua da haurren eskubideak errespetatzen dituen eta giro fisiko, psikologiko eta sozial babeslea sustatzen duena, ingurune digitala barne.”

### 1.4. Indarkeria

“Indarkeriatzat joko da heldu batek edo pertsona adingabe batek egindako ekintza, ez-egite edo zabarkeriazko tratu oro, baldin eta hurrek beren eskubideez eta ongizateaz gabetzen baditu, eta, betiere, **haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen** badu, edonola eta edozeren bidez eginda ere, harremanaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, bereziki indarkeria digitala eta noizbehinka, eskuarki nahiz modu jarraituan, familia barruan nahiz kanpoan gertatua ere.”

Indarkeriak hurrei eta nerabeei eskubideak eta ongizatea kentzen dizkie.

### 1.5. Arrisku-faktoreak eta indarkeria motak

Indarkeriaren inpaktua handiagoa edo txikiagoa izango da honako elementu hauen arabera:

- Zer intentsitate duen.
- Nork eragiten duen.
- Noiz eragiten den: haurren eboluzioaren zer unetan dagoen.

Hori kontuan hartuta, haur eta nerabeen aurkako indarkeria mota eta azpimota desberdinak sailka daitezke eta guztiak hartu beharko ditugu kontuan:

#### Auto-ezarria

- Suizidioa
- Suizidio-ahalegina eta ideia suizidak
- Auto-lesioak
- Elikadura jokabidearen nahasmenduak: anorexia, bulimia,...

## Pertsonen artekoa

### ARDURAGABEKERIA

- Behar fisikoen deskuidua: elikadura, higiena eta garbitasuna, segurtasuna, jantzi egokiak, etxebizitzaren baldintzak
- Estimulu falta
- Behar emozionalei eta afektuei arretarik ez ematea
- Zainketa medikoen gabezia (fisiko zein mentala)
- Arau, muga eta balioen gabezia
- Hezkuntzarekin lotutakoa: baliabide gabezia, ikasketak uztea
- Sozializazioarekin lotutakoa: eskolaz kanpoko ekintzak eta aisialdi jarduerak egiteko aukerarik ez izatea.

### INDARKERIA PSIKOLOGIKOA/EMOZIONALA

- Hizkera / Jokabide desegokia, iraingarria, sexualki probokatzaila, apalgarria eta kulturalki desegokia.
- Mehatxuak
- Isekak eta barregarri uztea
- Gezurrak
- Umiliazioak
- Xantaia
- Manipulazioa
- Isolatzea edo taldetik kanporatzea
- Berdinen arteko indarkeria (bullying, erasoak...)
- Ziberjazarpena
- Ohorea eta intimitatea urratzea

### INDARKERIA MATXISTA

- Emakumeen / nesken eta gizonen / mutilen arteko ezberdintasun-egoerak
- Beste indarkeria matxista batzuk: LGTBIQ\* kolektiboak
- Bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeria (genero indarkeria)

### ADINGABEEK ERAGINDAKO TRATU-TXARRAK

- Gurasoenganako indarkeria praktikatzan duten nerabeak
- Berdinei eragindako indarkeria

### INDARKERIA FISIKOA

- Tratu-txar fisikoak (kolpeak, ebakiak, erredurak, astinduak,...)
- Gorputz-zigorak
- Intimitatea urratzea
- Berdinen arteko indarkeria (kolpeak, jipoiak, borrokak, erasoak...)
- Mutilazioak: mutilazio genitalak

### INDARKERIA SEXUALA

#### Sexu-abusua eta -erasoa

- Haurra / nerabea – Adindua
- Berdinen artean

#### Kontakturik gabe

- Begirada sexualak
- Irudi sexualak ikustea behartzea
- Irudi sexualak sortzea behartuta
- Irudi sexualak partekatzea
- Exhibizionismoa aurrez-aurre edo online

#### Kontaktuarekin

- Musu behartua
- Sexu-ukitze behartua
- Behartutako ukipen genitala
- Ahozko sexu behartua
- Sarketa behartua

#### Sexu-abusua sare sozialen bidez

- Sextinga: mezu, argazki eta bideo erotiko edo sexualen trukea bi aldean baimenarekin
- Sextortsioa: bidalitako argazkiak eta bideo sexualak ezagun edo familiaren artean zabaltzeko mehatxua
- Groominga: heldu batek sare sozialen bidez egindako sexu-jazarpena

### SEXU-ESPLOTAZIOA

#### INDARKERIA BIKARIOA

#### ABANDONUA



## Kolektiboa

- Emakumeen / nesken aurkako indarkeria
- Eskolako / eskolan ematen den indarkeria
- Haur eta nerabeen datuen (eta irudien) erabilera desegokia
- Datu pribatuak publikoki jakitera ematea
- Komunikabideek eskaintzen dituzten edukiekin lotutakoak
- Pornografia / Sexu abusuko materialak
- Prostituzioa / Haurren sexu esplotazioa
- Lan esparruan gertatzen diren indarkeriak
- Egoera zaurgarrian dauden haur eta nerabeak
- Babesgabetasun-egoerak
- Indarkeria eragiten duten haur eta nerabeak

## Indarkeria

- Indarkeria matxistak (esparru pribatutik, maila estrukturalera)
- Sistemak haur eta nerabeen eskubideen babeserako dituen gabeziak eta hutsegiteak
- Aurrekontu banaketa desberdina (adina, generoa...)
- Sentsibilizazio eta trebakuntza gabezia (gizarteak, familiekin, sistema desberdinek...)
- Profesionalen prestakuntzan hutsuneak
- Ekipamendu /Gune / Espazio desegokiak
- Baliabide eskasak
- Bigarren biktimizazioa
- Familia eta laneko bizitza bateragarria egiteko (kontziliazioa) zailtasuna
- Gatazka kulturalak
- Pobrezia eta bazterketa soziala

### Indarkeria matxista: zer da?

**Indarkeria matxista** emakumeen eta **sexu-genero sistematik kanpo dauden pertsonen** (hala nola LGTBIAQ+ kolektibokoan) aurkako indarkeria da. Botere-harreman desorekatuetan oinarritzen da eta sexu-generoaren arabera dauden **desberdinkeria-egoera estrukturalak betikotzeko funtzio soziala du**.

Ez dira gertakari isolatuak, egitura sozial baten parte dira, eta helburua da:

- Emakumeen eta LGTBIAQ+ pertsonen askatasuna, autonomia eta presentzia mugatzea.
- Kontrola eta beldurra ezartzea espazio publiko zein pribatuetan.

Modu desberdinetara azaleratu daiteke: indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa.

Eraso matxistak izan daitezke:

- Itxura fisikoa mespretxatzea, iraintzea edo umiliatzea
- Nahi gabeko ukituak edo hurbilketak
- Jazarpena, jarraitzea, tematzea
- Sexu-erasoak edo bortxaketak
- LGTBIAQ+ pertsonen aurkako umiliazioak, irainak edo mehatxuak

Ez dago justifikaziorik: ez alkoholagatik, janzkeragatik, ezta harremanagatik ere.

Erasoa beti da erasotzailearen ardura.

### **EAEko berdintasuneko legeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak nola definitzen dute indarkeria matxista**

EAEko berdintasuneko legeak indarkeria matxista modu honetara definitzen du:

“1.– EAEko botere publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatu behar dute.

2.– Emakumeen aurkako indarkeria matxista **giza eskubideen urraketa bat da**, arazo soziala eta osasun publikoko arazo handia, **botere-harreman ez-parekoen eta emakumeen kontrako diskriminazioaren erakusgarri argia**, eta, horretaz gainera, **generoaren arabera dauden desberdinkeria-egoera estrukturalak betikotzeko funtzio soziala du**.

**Emakume izateagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du**, neska txikien, neska nerabeen eta emakume transexualen kontra egiten dena barne, edo neurritz kanpo eragiten dien indarkeria, bai eremu publikoan, bai pribatuan.

Indarkeria egitezkoa zein ez-egitezkoa izan daiteke, eta bitartekoak izan daitezke fisikoak, psikologikoak edo ekonomikoak, mehatxuak, larderia eta hertsapena barne, baldin eta haien ondorioa min, sufrimendu edo kalte fisikoa, sexuala, psikologikoa, soziala, sozioekonomikoa edo ondarearekin lotutakoa bada.

3.– Emakumeen kontrako indarkeria matxista dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren kontrako indarkeria, familia-indarkeria, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neska txikien salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste jardun tradizional kaltegarri batzuk, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu- eta ugalketa-eskubideak urratzea, eta emakumeen edo neska txikien duintasuna, segurtasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste edozein indarkeria mota, baldin eta nazioarteko tratatuetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko edo Autonomia Erkidegoko araudietan jasota badago.

Hori guztia, kontuan izan gabe alor publikoan edo pribatuan gertatzen den; horren barnean sartzen dira, besteak beste, eremu hauek: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola, komunitatea, komunikabideak, aisialdi- eta jai-espazioak eta eremu birtuala”.

(54. art., 1/2023 *LEGEGINTZAKO DEKRETUA*, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena)

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak indarkeria matxistari buruz erabiliko den terminologia eta horren oinarria den azterketari buruzko agiri bat argitaratu zuen 2014an (dokumentua hemen ikus daiteke: [Terminologia-Indarkeria matxistaren arloko kontzeptuak](#)). Agiri horretan terminologia bat proposatzen du, indarkeriari aurre egiten dieten emakumei arreta ematen dieten foru zerbitzuetan erabiliko dena

5. irudia Terminologiaren eskema  
Figura 5: Esquema terminológico





## 2. AISIA HEZIGARRIA

### 2.1. Legearen garrantzia eta aisia hezigarriaren fokoa

**Aisialdi hezigarria** deitzen zaio haurren garapen osoa lantzen duten aisialdiko jardueren multzoari. Jarduera horien bidez, haurrek ikasten dute:

- Parte hartzen,
- Ingurumena errespetatzen,
- Konpromisoa eta elkartasuna izaten,
- Gizartean modu inklusiboan bizitzen.

Gainera, jarduera hauek laguntzen diete beste umeekin harremanak egiten eta gizarte-trebetasunak garatzen.

#### Kontuan hartu beharreko balioak

- Dibertsioaren, aisialdi hezigarriaren eta denbora librearen **erabilera-modu osasungarri eta askotarikoen** aukera sustatzea.
- **Jolasteko eta aisialdi hezigarria izateko aukera berak ematea haur guztiei**. Horretarako, ekintza positiboko konpentsazio-neurriak hartuko dituzte desgaitasunak dituzten pertsona adingabeen alde edota arrazoi ekonomiko, sozial edo kulturalengatik zaurgarritasun sozialeko egoeran daudenen alde.

Halaber, desgaitasunen bat duten haurrenganako errespetua sustatuko da; etapa ebolutibo bakoitzeko garapen fisiko, psikiko eta sozialean lagunduko dute; eta **saihestu egingo dituzte edozein diskriminazio mota, jarrera matxistak edo indarkeriazko eta gorrotozko jarrerak** bultzatzen dituzten elementu, mezu edo estereotipoak.

## 3. NOLA SORTU GUNE SEGURUAK

### 3.1. Ezaugarriak

- 1.-Inolako indarkeriarik ez baimentzea
- 2.- Inguruneak eta ekintzak ebaluatzea, seguruak izan daitezen.

Ingurune segurua izateko gutxienez 4 adierazle hartu beharko dira kontuan:

Ingurune fisikoa:

Kokapena, eraikina, irisgarritasuna, segurtasuna eta suteen prebentzioa, espazioaren dimentsioa eta banaketa (mugimendurako tokia, banaketa: txoko ezkutuat...), beharrezko mantentze-lanak eta garbitasuna, haurren beharrei egokitutako espazioa.

Ingurune emozionala.

Ingurune fisikoa berotasunez hornitzea, segurtasun emozionala sortzeko: berotasuna (ingurunea gure egitea), musika, janaria, entzuteko eta laguntzeko espazioak.

Protagonismoa:

Udalekuetan protagonista izan daitezen bermatzea. Egunerokoan taldean, eragiten dieten erabakietan, ekintzetan, ebaluazioan.

Inguruneaz arduratzen diren heldu-kontzientek.

Zer, zergatik eta zertarako egiten dugu jakitea, taldean lan egitea, haurrekin afektibitatea lantzea eta adierazten

jakitea. Profesional gisa afektibitatea betebeharrak bihurtzen den gaitasun bat da.

## 4. UDALEKUETAKO AGENTEAK

- Udalekuetako begiraleak.
- Udalekuetako zuzendariak.
- Udal teknikariak: Erreferentziazko udal teknikaria gazteria teknikaria izango da eta, behar izanez gero, berdintasun teknikariak edo/eta gizarte langileek ere parte hartu ahalko dute jarduketan.
- Kasuaren larritasunaren arabera, beste erakunde batzuekin koordinatu beharra egon daiteke (Osakidetza, Ertzaintza...) edo baita politikariarekin ere.

### 4.1. Begiraleen funtzioak

- **Protokoloaren** aurkezpen bileran parte hartzea.
- Jokabide-kodea dokumentua sinatzea eta bertan jasotako jokabide eta jarrerak bere egitea.
- Protokoloa aplikatzea eta bertan jasotakoak betetzea; besteak beste, indarkeria egoeraren bat antzematen denean, gainerako begiraleekin eta zuzendariarekin behar diren komunikazioak gauzatzeko, gertakari txostena betetzea eta zuzendariarekin eta erreferentziazko teknikariarekin balorazio-bileran parte-hartzea.
- Erreferentziazko eta konfiantzazko pertsona izatea haurrentzat, ezinegonak haiei kontatzeko.
- Behar diren neurriak hartzea udaleku irekiak adina, arraza, desgaitasun, sexu orientazio, sexu identitate edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialen ondoriozko diskriminaziorik gabe jaso daitezkeen bermatzeko.
- Haurren parte hartze aktiboa sustatzea
- Bere taldearen babes ordezkaria izatea.
- Egunero udalekuak amaitzean haurra baimendutako pertsonarekin joaten dela bermatzea.

### 4.2. Zuzendarien funtzioak

- Protokoloaren aurkezpen bileran parte hartzea.
- Jokabide-kodea dokumentua sinatzea eta bertan jasotako jokabide eta jarrerak bere egitea.
- Protokoloa haurren artean hedatzen dela bermatzea eta begiraleek betearazteaz arduratzea;
- Indarkeria egoeraren bat antzematen denean, begiraleen komunikazioak aintzat hartzea eta erreferentziazko udal teknikariari bilera-deia egitea;
- Begiraleekin eta erreferentziazko teknikariarekin balorazio-bileran parte-hartzea eta gertakari-txostena eguneratzea.
- Protokolo honen markoan edo egunerokotasunean gaiarekiko sortzen diren beharrak, zalantzak edo zailtasunak erreferentziazko udal teknikariarekin konpartitzea eta, behar izanez gero, lantzea.
- Begiraleen erreferentziazko eta konfiantzazko pertsona izatea; begirale, tutore legal edo guraso eta erreferentziazko udal teknikariaren arteko bitartekaria izatea.



- Haurra jasotzera baimenduta ez dagoen pertsona bat joaten bada, guraso edo tutore legalarekin harremanetan jartzea eta baimena berrestea.
- Udalekuetako monitorizazioa eramateko, astero erreferentziatzko udal teknikariarekin bilera bat egitea.
- Udaleku irekien zerbitzua amaitzean, erreferentziatzko udal teknikariarekin protokoloaren ebaluazioa gauzatzea.

#### 4.3. Erreferentziatzko udal teknikariaren funtzioak

- Protokoloa begirale eta zuzendariari aurkezten zaiela bermatzea.
- Udaleku irekiak gauzatzen diharduten bitartean, zuzendarien erreferentziatzko pertsona izatea (gaiaren inguruko edozein zalantza argitzeko edo kontrastatzeko).
- Indarkeria egoeraren bat antzematen denean, zuzendari eta begiraleekin izango den balorazio-bileran parte hartzea; udal teknikarien talde teknikoa biltzea erabakitzen bada, bilera horretako deia egitea eta bertan gertakarien txostena osatzea.
- Udaleku irekien zerbitzua amaitzean, zuzendariarekin protokoloaren ebaluazioa gauzatzea.

#### Printzipioak

Funtzio horiek ondorengo **printzipioak** oinarritzat hartuta beteko dira:

- **Haurren interes gorena:** Haurren interesak defendatu behar dira eta haurrak artatu eta babesteko behar diren neurriak hartuko dira, haien eskubideak, ongizatea eta garapen integrala ziurtatu asmoz.
- **Isilpekotasuna:** Prozesuan inplikaturako agente guztiekin konfidentzialtasuna bermatzen ahalegintzea.
- **Babesa eta segurtasuna:** Entitateak eta hezitzaileek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte indarkeria-egoera baten haurren babesa eta segurtasuna bermatzeko.
- **Ahalduntzea eta erreparazioa:** Indarkeriaren biktimen autonomia eta erabaki- eskubidea bermatzeko ahalegina egingo da.
- **Eraginkortasuna eta bizkortasuna:** Antolaketa eraginkorra eta bizkorra bermatu behar da.
- **Babes integrala eta pertsonalizatua:** Indarkeria-egoera bakoitzaren ondorioz sortzen diren beharrei erantzun zaila. Horretarako, kasuan kasuko egoera pertsonal eta sozialerako zerbitzuak eta prestazioak eskura jarriko dira edo dagokion erakundera bideratuko dira.
- **Koordinazioa:** Tartean dauden erakundeen artean lankidetzatza, lan koordinatua eta kolaboratiboa egon dadin zaintzea.
- **Biktimen bigarren mailako biktimizazioa prebenitzea:** Indarkeria-egoera bat sortzen denean nola jokatu jakitea beharrezkoa da. Ezinbesteko gutxieneko esku-hartzea egin behar da, bigarren mailako biktimizazioa saihesteko; hau da, profesionalak eta erakundeek egiten ditugun jardueren ondorioz haur eta nerabeek min handiagoa pairatzea saihestu behar da.



## 5. LANERAKO TRESNAK

### 5.1. Begiraleen jokabide-kodea

Udalekuetan parte hartzen duen orori tratu ona ematen zaiola zainduko da, bereziki haurrei, baina baita zuzendariei eta gainerako begiraleei.

Horrek esan nahi du:

- 1.- Ez iraintzea, ez mehatxatzea, ez beldurtzea, ez zigortzea, ez tratu iraingarria edo gustu txarreko txantxarik dakarren ekintzarik egitea ere.
- 2.- Haurren eskubideak urratzen dituzten, lotsatzen, isolatzen, estigmatizatzen edo degradatzen dituzten portaerak saihestea.
- 3.- Gorrotoa, arrazakeria, sexismoa edo homofobia ez onartzea.
- 4.- Haurrik ez diskriminatzea inolako arrazoiengatik.
- 5.- Parte-hartzaileen eta begiraleen artean zurrumurru faltsuak ekiditea.
- 6.- Haurrarekiko hizkuntza edo portaera desagokia, iraingarria, sexualki probokatzailea edo kulturalki desagokia ez erabiltzea; aitzitik, hizkuntza zainduko da, adeitsua, errespetuzkoa, inklusiboa eta ez mugatzailea adinari egokitua.
- 7.- Tratu onerako eta indarkeriarik gabeko guneak sustatuko dira haurren elkarbizitza eremu guztietan.
- 8.- Jarduera guztietan laguntza premia berezia duen haur oro parte hartzera eta integratzera ahaleginduko da.
- 9.- Haurren osotasun fisiko, psikiko eta sexueralako arrisku-egoerak ezagutzea eta identifikatzea.
- 10.- Haur bati eragiten dion susmo, indarkeria-egoera edo jokabide-kodearen ez-betetze ororen berri ematea babes-ordezkariei, edo zuzendariei, eta egoera honen argitze lanetan parte hartzea.
- 11.- Udalekuan parte hartzen duen eta adinez nagusi den oro, espazio itxi batean haur batekin bakarrik geratzea saihestuko da.
- 12.- Haurrak lekualdatzeko ibilgailu pribaturik ez erabiltzea, guztiz beharrezkoa ez bada.
- 13.- Haurren intimitatea errespetatuko da: ez da komunean, edota igerilekuko bakarkako dutxetan horrelakorik balego, sartu behar justifikaturik ez badago.
- 14.- Erabat debekatuta dago hurrekin harreman intimorik edo sexualik izatea.
- 15.- Gatazkak edo gorabeherak bitartekaritza- eta hezkuntza-ekintzen bidez konpontzen saiatuko da, betiere parte-hartzaileei entzunda.
- 16.- Haurren artean indarkeriazko edo botere-abusuzko dinamikak ez onartzea, ezta helduengandik datozenak ere.
- 17.- Haurren datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzea eta haien irudia babestea.
- 18.- Haurren aurrean telefonoa arduratsu erabiliko da. Parte hartzaileen irudirik partekatu gabe.
- 19.- Ezin da alkoholik, tabakorik edo bestelako drogarik kontsumitu udalekuak irauten duen bitartean ezta haurren bistan ere..



20.- Galarazita dago izaera politikoko ekitaldiak hurrekin antolatzea edota horrelakoetan parte hartzea egunetan suertatzen bada.

21.- Garrantzitsua da udalekuetan parte hartzen duten pertsona guztiek jokabide-kodea ezagutzea, betetzea eta besteei bete araztea

## 5.2. Babes ordezkaria

Udaleku irekietako begirale denak izango dira, eta hurrek harengana jo ahal izango dute beren ezinegonak eta kezkek azaltzeko edo hari aditzera emateko zer indarkeria-egoera jasan, ikusi edo ezagutu duten.

### FUNTZIOAK:

- 1.- Euren burua erreferente nagusi modura identifikatzea pertsona adingabeen aurrean.
- 2.- Protokoloak betetzen direla ziurtatzea, eta, bereziki, haurren kontrako indarkeria-egoeraren bat detektatzen bada, dagozkion komunikazioei ekitea.
- 3.- Pertsona adingabeentzat ahalik eta ongizaterik handiena ziurtatzeko neurriak sustatzea, baita haiei tratu ona ematearen kultura ere.
- 4.- Pertsona adingabeen artean gatazkak modu baketsuan konpontzeko metodo alternatiboen erabilera sustatzea.
- 5.- Kirol inklusiboa, oro har, sustatzea, bai eta, orobat, desgaitasunen bat edo zaurgarritasun berezi edo handiago bat duten pertsona adingabeekiko errespetua.

## 5.3. Arriskuen mapa

Sortu daitezkeen babesgabetasun fisiko zein emozionalen arriskuak hautematen laguntzen duen prebentzio-tresna da arriskuen mapa. Kontuan hartu behar da arriskuek zer jatorri eduki dezaketen: pertsonak, prozedurak, gure jarduera bideratzen dugun testuinguru soziala, egoera edo entitatea bera. Arriskuak egiten dugunaren emaitza izan daitezke, baita egiten ez dugunaren edo egiten ez dakigunaren emaitza ere.

## 5.4. Prebentzio protokoloak

### Haurrak udalekuak amaitu ostean itzultzeko protokoloa

Gure erronka nagusietako bat haurren babesa den heinean, udalekuak amaitzean haurra norekin uzten dugun ere begiralearen ardura izango da. Horretarako badira haur batzuk, etxera bakarrik joateko baimena dutenak baina beste batzuk, txikienek alegia, ez dute horrelako baimenik.

Horien kasuan, udalekuetatik haurra jasoko duten 2 pertsonen datuak eskatu dira izen emate prozesuan. Begiraleak, lehen egunean haurra jasotzen duen pertsonaren datuak kontrastatu beharko ditu emango zaion zerrendan eta egunero haurrak pertsona horrekin edo horiekin doazela bermatu beharko du.

Haurren bila, izendatutako pertsona ez bada etortzen eta beste bat etortzen bada, haurra eman aurretik zuzendariei jakinarazi beharko zaio, hau haurren guraso edo tutore legalarekin harremanetan jartzeko eta haurra berarekin eramateko baimena eskatzeko.

### Argazkiak ateratzeko protokoloa

Teknologia berrien eta komunikabideen gizarte honetan irudi eskubideak gero eta garrantzia handiagoa dute. Norbanakoaren eskubide hauek babestu nahian, eta batez ere adingabekoen eskubideak, bidezkoa iruditzen zaigu arau batzuk betetzea, batez ere haurren inguruko argazkiak edo irudiak hartu eta hauen erabilpena egiterakoan,

adibidez: Aretxabaletako udaleko webgunean zintzilikatzeko edo Loratu udalekuak webgunean zintzilikatzeko ....

Hona hemen argazki eta irudien kudeaketa egiteko hainbat jarraibide:

- Udaleku irekietan ateratako argazki eta irudi guztien jabetza Aretxabaletako udalarena da.
- Argazki eta irudi hauek ezingo dira erabili norbanakoaren intereserako.
- Argazkiak ateratzea saihestu behar da. Argazkiak atera behar badira, talde bakoitzean begirale bat izendatuko da horretarako. Begirale honek bakarrik atera ahalko ditu argazkiak.
- Argazkiak ateratzeko guraso baimena izan behar dute haurrek.
- Argazkiek ze helbururi erantzungo dioten argi adierazi behar du zerbitzuaren kudeatzaileak.
- Udaleku irekietako zerbitzua kudeatzen duen elkartearen Web gunean argazkiak zintzilikatzeko garaian taldeko irudiak edo argazkiak erabiliko dira.
- Ez da partaideen lehen planorik jarriko.
- Argazkiak ez dira maneiaturiko.
- Argazki horiek webgunean denbora mugatu batean egon beharko dira; uztailaren 31a arte.

### Autobuserako protokoloa

- Udaleku irekietan txangoak daudenean autobusak irteteko finkatutako tokian egon beharko dira begiraleak, gutxienez irteera-ordua baino 15 minutu lehenago.
- Autobusaren irteera-tokian begirale bat izendatuko da arduradun eta berak hartuko du taldearen ardura.
- Irteerara izena emandako partaide zerrenda eta bildutako haur taldea bat datozela egiaztatuko du, eta zuzendariari aditzera emango dio gertatzen den gorabehera oro.
- Begiraleek erantzungo dituzte gurasoek autobusa irten aurretik egiten dituzten kontsulta guztiak.
- Bidaian begiraleek arduraz eta gertutasunez jokatu dute haurrekin, inor bakarrik dagoen begiratu eta horrela bada, taldeko partaide izan daitezen, babesa eta tratu ona emanez.
- Helmugara heltzean, haurrak autobusetik banan-banan jaitsi eta elkartuko dira beren begiralearekin edo begiraleekin. Haurrak ez dira bakarrik utziko euren gurasoak eta tutoreak etorri arte.

### Datuak tratatzeko protokoloa

Datu pertsonalen trataerak gero eta garrantzia handiagoa dute. Norbanakoaren eskubide hauek babestu nahian, eta batez ere adingabekoen eskubideak, bidezkoa iruditzen zaigu arau batzuk betetzea, batez ere haurren inguruko datu pertsonalen erabilpena egiterakoan,, hona hemen

Datuen kudeaketa:


- Aretxabaletako udaleku irekietan emandako datu guztien jabetza Aretxabaletako Udalarena da.
- Datu hauek ezingo dira erabili norbanakoaren intereserako.



- Haur eta familien datuak gordeta dauden plataformara sartzeko baimena zuzendariak bakarrik izango dute.
- Zuzendariak behin udaleku irekietarako izen ematea amaitzen denean udal teknikariari bidaliko diote izen emate datu fitxa.
- Ez da dokumenturik inprimatuko beharrezkoa ez bada.
- Udaleku irekiak amaitu ondoren, inprimatutako dokumentuak birrindu egingo dira.
- Dokumentuen fotokopiarik ez da egingo. Dokumentuaren kopia digitalik (pen-drivean, edo bestelako gailu digitalean) ezingo da egin.
- Udaleku irekiak amaitu ondoren izen emate fitxategia birrinduko da.

## 6. INDARKERIA EDO JARRERA DESEGOKIEN KASUAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

### UDALEKU IREKIETAN INDARKERIA ETA JARRERA DESEGOKIEN KASUAN JARDUTEKO PROTOKOLOA



#### 6. 1. Identifikatzea

Udalekuetako parte hartzaile batek ikusten badu, jakiten badu, edo susmorik badu, beste parte hartzailearen batek indarkeria egoera bat edo jarrera desegoki bat jasan duela, nahitaez jakinarazi beharko dio nork bere erreferentziatzko begiraleari.

Haur eta nerabeek duten salaketa-bidea zuzenean nork bere erreferentziatzko begiralearengana jotzea izango da.

Erasoren bat egon dela susmatuz gero, honako hau egin beharko du begiraleak:



## 6.2. Biktima artatzea

Garrantzitsua da azkar jardutea, haurra ahalik eta gehien babesteko. Haur edo nerabe bat indarkeria-motaren bat pairatzen ari dela jakiten dugunean, esku hartu behar dugu.

Espazio bat sortzea, ustez erasoak jasan duen haurrak gertatutakoa, sentitzen duena eta egin nahi duena adierazteko.

**Egoera larria bada**, presazko neurriak hartuko ditu begiraleak, babeserako eta kalte handiagoa prebenitzeko eta, berehala jakinarazi beharko die agintari eskudunei (polizia, osasuna, gizarte-zerbitzuak...).

Haurra osasun zentro batera eraman behar bada, udalekuko beste begiraleren batekin eramango du.

Berehala zuzendariei egoeraren berri emango die eta zuzendariak erreferentziatzeko udal teknikaria jakinaren gainean jarriko du.

Udal teknikariak biktimaren familia jakinaren gainean jarriko du, salbu eta irizten bazaio informazio horrek arriskuan jartzen duela –familia barneko indarkeria dagoela jakinez gero–.

## 6.3. Esku-hartzea

Begiraleek egoeraren balorazioa egingo dute:

**Nortzuk?** Inplikaturako haurrak talde berekoak direnean, erasoaren berri izan duen begiraleak talde horretako begirale guztiekin kontrastatuko du egoera.

Inplikaturako haurrak adin talde desberdinetakoak direnean, adin talde bakoitzeko begirale guztiak elkartuko dira.

**Zer baloratuko da?** Begiraleek bi gai baloratuko dituzte: esku-hartzerik egin behar den eta inplikaturako hurrekin neurririk hartu behar den. Esku-hartzerik ez egitea erabakitzen bada, ez zaio zuzendariari honen berri emango, egoera ez da erregistratuko eta haur edo nerabeekin unean uneko neurriren bat hartuko den baloratuko da. Esku-hartzea egitea erabakitzen bada, gertakarien fitxa beteko dute eta zuzendariei jakinaraziko zaie; horrez gain, momentuan inplikaturako hurrekin neurririk hartzea komeni den baloratuko da.

### **Begiraleen arteko balorazioa esku-hartzearen aldekoa bada:**

1.-Gertakarien fitxa bete eta bi zuzendariei bidaliko zaie egunean bertan.

2.- Zuzendariak gertakariaren larritasunaren arabera bien artean kudeatuko duten ala ez erabakiko dute.

**Gertakaria larria bada**, Zuzendariak erreferentziatzeko udal teknikariari gatazka fitxa bidali eta bilera-deialdia egingo dute. Bilera horretan gutxienez begirale batek, erreferentziatzeko udal teknikariak eta zuzendari batek parte hartuko dute; udal teknikariak beste teknikari bat gonbidatzea erabaki dezake, gaiaren arabera.

Bilera honetan gertakarien fitxa zuzendariak eguneratuko du eta bertan hurrengo pausoak jasoko dira (udal bilera tekniko egingo den, inplikaturako hurrekin hartuko diren neurriak, haurren edo haurren arduradunekin nola jokatu erabakiko da).

Hau dena, kasua hauteman eta **24 orduko epean** gauzatuko da astean zehar bada, eta astelehenean ostiralean gertatu bada.

3.- Udal teknikariak, entzundakoaren arabera baloratuko **du lan talde Teknikoa** bilera batera deitu ala ez.

**Lan talde Teknikoa:** Berdintasun teknikariak, gizarte zerbitzuetakoak eta Gazteria teknikariak osatu dute. Lan talde Teknikoa deitzea erabakitzen bada, 48 orduko epean egin beharko du bilera, kasua hauteman denetik.

Aipaturako bi bilera horietan erabakiko dira tartean dauden pertsonekin eta kolektiboekin hartu beharreko neurriak eta

familiei edo legezko arduradunei egingo zaien komunikazioa. Dagokion organoak erabakitako neurri horiek gauzatuko ditu.

### **[Tartean dauden pertsonekin eta kolektiboekin hartu beharreko neurriak**

Begirale-taldeak, udalekuetako zuzendari eta udal teknikariek bat etorritik, kasu zehatz bakoitzerako neurriak eta jarduerak zehaztuko ditu. Beste edozein egoeratan, honako neurri hauek abiaraziko dira:

#### **Neurriak biktimarekin: eraso jasan duenaren**

1.-Erasoa jasan duen pertsonaren segurtasuna berehala bermatzeko neurriak: Egin nahi duena entzun eta egindako urrats eta hartutako neurri oro jakinarazi.

- Babes eta laguntza neurri espezifikoak hartu, adibidez, behar duen denboran era berezian lagun bat izatea alloan.
- Jarduerak halabeharrez ez uztea, nahi ez badu.

#### **Neurriak jarduketa kaltegarria egin duenarekin edo dutenekin:**

- Biktimak distantzia behar badu, eraso egin duena irtetea (ateratzea, kanporatzea) erabaki ahalko da, baita eraso jasan duenarekin batera erreparazio esku hartze bat egitea ere: biktimarekin kontaktu fisikoa saihestea eta erasoaren zauria osatzeko beharrezko denborak errespetatzea.
- Erasoa egin duena gainbegiradapean mantentzea, begirale, zuzendari eta teknikariek osatutako mahaia zer neurri hartu erabaki arte.
- Erasoa egin duenaren familiarekin harremanetan jartzea egoeraren berri emateko eta, beharrezko irizten bada, epe luzeko banakako esku hartze bat egitea gomendatzeko, kasu hau, teknikarien lan taldean erabakitakoaren baitan gauzatuko da.

#### **Jarduketak begiraleekin:**

- Zuzendariak erasoaren inguruko lanketa egitea begiraleekin, gertatutakoa azalduta, eta jasan dutenak edo egin dutenak estigmatizatu gabe.
- Begirale egokienak identifikatzea, bere profilen arabera, eraso jasan duenarekin, egin duenarekin eta taldearekin lantzeko.

#### **Jarduketak kideekin:**

- Erasoren inguruko lanketa bat egitea, gertatutakoa azalduta, eta jasan dutenak edo egin dutenak estigmatizatu gabe.
- Beste haur batzuen konpromisoa aktibatzea, berdinen artean ikusten dituzten edo ikusi dituzten sexuagatiko/ bazterkeriagatiko jokabide oldarkorrak arbuiatzeko.

### **Familiei edo legezko arduradunei helaraztea**

#### ***Erasoaren izaeraren arabera, egoera kudeatzea dagokien agenteen eginbeharrak***

Udal teknikariek parte hartzen duten bileran erabakiko da nor arduratuko den familiarekin harremanetan jartzea. , Egoerari eta hartutako neurriari buruzko informazioa emango zaie, aurrez aurreko bilera batean, eta une oro



konfidentzialtasun osoz tratatuko da kasua.

Hala badagokio, eta beharrezkotzat jotzen bada, familiari jakinarazi ostean, erabaki ahalko da gertakaria jakinaraztea adingabeak babesteko administrazio eskudunaren zerbitzuei.

Jakinarazpen formalak: Jakinaraztea bidezkoa bada, dagokion udal teknikariek idatziz bidaliko dute hautemandako babesgabetasun egoerari buruzko informazioa.]

#### **6.4. Jarraipena**

Gertakariaren jarraipena egitea ezinbestekoa da.

#### **6.5. Ebaluazioa**

- 1.- Aktibatutako protokolo kopurua eta izaera
- 2.- Hartutako neurrien balorazioa; egokiak izan diren baloratu.
- 3.- Protokoloak markatzen dituen urratsak egokiak izan diren baloratu.
- 4.- Hobekuntzarik behar duen baloratu

### **7. MONITORIZAZIOA**

- 1.- Udalekuetako zuzendariekin ekintzen azterketa egin
- 2.- Udalekuetako zuzendariekin eguneroko kontaktua mantendu
- 3.- Astean behin jarraipen bilera bat egin
- 4.- Udalekuetako ebaluazio txostena partekatu eta ebaluazio bilera egin.